

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

**Mañueta, Eltziego, Kripan, Leza, Moreda, Nabaridas, Oyón-Oion eta Samaniego udalerrietan hiri-hondakinak biltzeagatiko tasaren kotizaziopeko errolda jendaurrean jartzea, eta 2023ko bigarren seihilekoari dagozkion ordainagiriak borondatezko epean kobratzea**

Mañueta, Eltziego, Kripan, Leza, Moreda, Navaridas, Oyón-Oion eta Samaniego udalerrietan 2023rako hiri-hondakinak biltzeko zerbitzua emateagatiko tasari dagokion kotizaziopeko errolda egin denez, eta 2022ko azaroaren 7ko ezohiko bilkuran errolda hori onartu zenez, jendaurrean jarri da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak egin ditzaten.

Interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren egoitzan (Gasteiz errepidea 2, 01300 Laguardia, Araba), 10:00etatik 13:00etara.

Ordaindutakoaren araberako erroldak jendaurrean jartzeak berarekin dakar errolda osatzen duten likidazioak kolektiboki jakinaraztea, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 98. artikularen 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik. Nolanahi ere, interesdunek berraztertzearen errekurtsoa aurkez dezakete esleitutako kuoten aurka, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak Kuadrillako lehendakariari aurkeztuko zaizkio, lehen adierazitako epeetan.

Borondatezko bideko kobrantza-aldia 2023ko abenduaren 1etik 31ra bitartekoa da, biak barne.

2023ko bigarren seihilekoari dagozkion helbideratutako ordainagiriak 2023ko abenduaren 4an kobratuko dira.

Helbideratu gabeko ordainketak finantza-erakundeetan:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten dokumentua bidaliko zaie etxera.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, ale bikoiztua igorriko da gure bulegoetan.

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak:

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak zuzenean kudeatuko du kargua ordainketa helbideratu den finantza-erakundeetan.

Borondatezko aldia igaro eta diru-sarrerarik egin ez bada, premiamendu-bidez kobratuko da, dagokion erreklama aplikatuta, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Guardia, 2023ko azaroaren 13a

*Presidentea*

**JOSÉ M<sup>a</sup> ELVIRA CEBALLOS**